

KANALAK

Gure proiektua bezeroengana helarazteko hasiera batean posterrak sortuko ditugu. Kartelak proiektuaren azalpen txiki bat, kokapena eta ekimena noiz hasiko den adieraziko du. Hala eta guztiz ere, ahoz ahoko transmisioa oso baliagarria izango zaigu, herrietan transmisiorik eraginkorrena izaten delako. Baina, gaur egungo egoerara egokitzeko, bezeroak lortzeko garaian sare sozialez ere baliatuko gara. Gainera, egokia ikusi dugu herritarren artean Whatsapp talde bat sortzea; hortaz, eguna aurrera doan heinean, iristen doan janaria bertan idazten dute, beste herritarrei jakinarazteko zein produktu dituzten eskuera.